

Gould baino gehiago

Inaki Irazabalbeitia
Elhuyar

Izar uxok ortzi ilunean bezala pasa zen Stephen Jay Gould Euskal Herritik: distiratsu eta arrastoa utzita. EIEk antolatu eta Elhuyarrek babestutako Prosa Zientifikoari buruzko 1. Biltzarra Gould-en hitzaldi erakargarria baino gehiago izan zen, komunikabideetan argitaratutakoari erreparatuta bestela irudi bazezakeen ere.

BILTZARRA MAMITSUA IZAN ZEN eta bertaratu ziren hogeita hamar bat biltzar-kideek arrazoi sendoak eta puntu indartsuak entzuteko parada izan zuten. Eztabaida, gainera, aberatsa eta askoren artekoa izan zen. Lastima...! Bi lastima bota beharko genituzke bildutako jatorriari begiratuta. Kazetaririk edota kazetaritza-irakaslerik ez zen agertu. Halaber, euskal argitaletxeetako editoreen mentsa ere sumatu genuen. Ondorioz, negozioan gabiltzanok, zientzietako unibertsitateko irakasleak eta ikasleak (Madriildik etorrita baten bat) eta Iraleko irakasle batzuk. Merkatu eskasa eskainitako uzta oparoarentzat.

Gogoeta egin beharko genuke ea zergatik publiko objektiboaren zati bat baino ez den hurbildu eta zergatik ez dien *Euskaldunon Egunkariak* EIEk antolatutako beste ekimenei egiten dien jarraipenaren modukorik egin. Hipotesi moduan zera jaulki dezaket: zientzia ez dela kultura edo prosa zientifikoa ez dela prosa, batzuentzat bederen.



G. ROA ZUBIA

Kasu horretan horiek egin beharko lukete gogoeta eta hausnarketa, errata dabiltzala iruditzen baitzait, pilota inoren teilatura botatzeko inongo in-tentziorik gabe.

“Gould euskaldunon propagandista ona izango da aurreratzean, eta horrelako asko behar ditugu”

Esan bezala, arrazoi sendoak bota ziren eta horietako batzuk ekarriko ditut hona. Jose Ramon Etxebarriak euskal prosa zientifikoaren historia modukoa egin zuen. Historiarrua 1970. arte lu-

zatu zuen eta benetako historia urte horretan hasi zela adierazi zuen. Unibertsitateko EKTetan izan zuen habia. Bi arrazoibide eman zituen: batetik, zientzia-gaiak euskaraz tratatzeko lehen ahalegin kolektiboak izan zirela eta, bestetik, etenik ez dutela izan. Halaber, Euskal Herriko hainbat tokitan aldi berean sortu zela horren beharra azpimarratu zuen. Aurreko ahaleginek ez zituzten ezaugarri horiek Etxebarriaren aburuz. Kepa Altonagak bere dudak agertu zituen eztabaidan eta *Eskualduna* agerkarian idatzi zuten medikuek, Jean Etxepare barne, jardun kolektibo diakroniko bat ez ote zuten osatu galdera planteatu zuen.

Andoni Ibarrek jardun zientifiko disiplinartekoak planteatzen direnean argot edo kreolera zientifikoak sortzearen komenientziaz jardun zuen, komunikazio motz eta mamitsu baten bidez.

agenda

argitalpenak

Pili Kaltzadak, komunikazio zientifikoa-
ren hainbat ezaugarri erreparosoa egin
ondoren, Zientzia Dibulgaziorako Eus-
kal Zentroa sortzeko proposamena
egin zuen. Zentro horrek Euskal Herri-
ko zientzia- eta teknologia-ekoizpena
gizarteratzeko ardura izango luke eta,
nolabait, euskal zientzia eta teknologia
hiritarren artean ezagutzera ematea
izango luke helburu nagusia. Bere hit-
zetan 'errazago izaten dugu NASAREN
berri, hementxe Eibarren dagoen Tek-
nikerren berri baino'.

Andoni Sagarnak Interneteko prosaren
estiloa izan zuen mintzagai eta horren
ezaugarri nagusiak azaldu zituen. Infor-
mazioa antolatzeke eta emateko modu
berria behar dela esan zuen. Estilo hori
egungo egunkarietan erabilitakotik ger-
tuago egongo ei da informazioa anto-
latzeko ohizko manera sekuentziales-
ekin.

Biltzarraren bukaeran baten batek ea
Gould ekarri izanak ez ote zuen Biltza-
rra ospeldu galdetu zuen. Egia esan,
Biltzarrak komunikabideetan izan duen
oihartzun bakarra Gould-en hitzaldia
izan da eta aurrekoa ondoriozta daite-
ke. Alabaina, nolako oihartzuna izango
zukeen Gould etorri gabe? Bestetik,
Gould oso pozik joan da Euskal Herrian
egin dioten harreragatik; Ekaingo ko-
bazuloan sartu da, Jesus Altuna gidari.
Zalantzarik ez dut Gould euskaldu-
non propagandista ona izango dela
aurreratzean, eta horrelakoak asko
behar ditugu. Merezi izan duela uste
dut. ☐

CAF-Elhuyar. Zientzia- -dibulgaziorako VIII. sariak eta II. beka. Sari-banaketa

Aurten ere iritsi da CAF-Elhuyar
sariak banatzeko parada. Sari-
banaketa urtarrilaren 11n egingo
da, Lasarteko Txitxardin Beltxa
jatetxean, arratsaldeko 7etan.
2001. urteko deialdira 20
dibulgazio-artikulu eta bederatz
liburu-proiektu aurkeztu dira.

Informazioa:
Elhuyar Kultur Elkarte.

Astebetez ikertzaile

Urtero legez, EICOS programa abian
da. Programak Europako zientzia-
-kazetari Göttingen-en dagoen
Biokimikako Max Planck Institutuan
astebete igarotzeko aukera ematen
die. Egitasmo horren bidez, kazetari
eta ikertzaileen arteko hartu-
-emanak sustatu nahi dira.

Noiz: Ekainaren 1etik 9ra
Non: Göttingen-eko Biokimikako
Max Planck Institutuan
Eskaerak aurkezteko epea:
otsailaren 15a baino lehen
Informazioa:
EICOS programme
Max-Planck Institute für
Biophysikalische Chemie
Am Fassberg 11
D-37070 Göttingen
Tel.: +49 (0) 551 201 1636
Faxa: +49 (0) 551 201 1075
eicos@gwdg.de
<http://www.eicos.mpg.de>

Teknologiaren gailurrean II

Egilea: René Thom
Argitaratzailea: Elhuyar
Iraupena: 75 min.

Gure gaur egungo gizartearen
ikerketak garrantzi handia du,
eta XXI. mendearen atarian ondo
zaindu eta landu beharreko alorra
da. Edonork, baina bereziki ikasle-
-irakasleek, eguneroko jardunean
lantzeko moduko gaiak bildu ditu
Elhuyarrek bideo honetan.



Ikasmaterial hau DBHko azken
zikloko eta DBHoko (batez ere
batxillerreko) ikasleak gogoan
izanda eginiko materiala da.
Teknologia modalitateko
ikasleentzat egoki eta beharrezko
diren gaiak aztertu eta lantzen
dira material honetan.
Bideoaren edukiak: mundu
osorako trenak; identifikazio
genetikoa; zenbat antxoa dago
itsasoan?; ur garbia edaten dugu?;
hau da pila-pila!; hau da
furgonetaren emana!; hegazkin-
-motorrak made in Euskadi;
Urdaibai: oreka bila erreserban;
nola kendu gasolina lurzorutik?



BILINTX
MEGADENDA DONOSTIAN

Fermin Calbeton, 21 - Tel.: 42 09 30 - 42 00 80 / Faxa: 42 23 63
IRUNEN: Republica Argentina, 4 - Tel.: 62 68 17
TOLOSAN: Arostegijeta - Tel.: 67 35 33
BERGARAN: Ibagarai, 14 - Tel.: 76 40 50



XALBADOR
LIBURUBENDA

Comedias, 14
Tel.: 22 41 67 / 22 99 81 - Faxa: 21 10 61
31001 IRUÑA



URRETXINDOR
LIBURUBENDA

Iparragirre, 26
Tel.: 424 02 28 / 424 43 96 - Faxa: 424
48011 BILBO